Lan-eskaintzen erregistroa 2021eko abenduan

ERREGISTRATUTAKO LAN-ESKAINTZA KOPURUA

2021eko abenduan Euskal Autonomia Erkidegoko enplegu-bulegoetan erregistratutako lan-eskaintzen kopurua 744 izan da, azaroan baino 950 gutxiago eta joan den urteko abenduan baino 158 gehiago.

• LURRALDE HISTORIKOAK

Kudeaketako Administrazio Unitatearen (KAU) lurralde historikoari erreparatuz, 2021eko abenduan 99 lan-eskaintza erregistratu dira Araban, 292 Gipuzkoan eta 353 Bizkaian. Lan-eskaintzen % 47,5 Bizkaiko KAUetan erregistratu dira, % 39,3 Gipuzkoakoetan eta % 13,3 Arabakoetan.



Aurreko hilabetearekin alderatuz, Araban % 51,9 murriztu dira eskaintzak (107 eskaintza gutxiago). Gipuzkoan 333 eskaintza gutxiago izan dira (% 53,3ko murrizketa) eta Bizkaian 510 gutxiago (% 59,1eko murrizketa).

Aurreko urteko hilabete berberarekin alderatuz, Araban eskaintza bat gehiago erregistratu da, % 1,0eo hazkundea, Gipuzkoan % 41,8 hazi dira (86 eskaintza gehiago), eta azkenik, Bizkaian % 25,2 hazi dira (71 eskaintza gehiago).

• LAN-ESKAINTZAKO LANBIDEA

Bost lanbide-profilek biltzen dituzte EAEn erregistratutako lan-eskaintza gehienak. % 21,2a zientzia teknikarien profilerako erregistratu dira (158 eskaintza); eta, % 17,7a hirugarren sektoreko profilerako (132 eskaintza). Industria perfileko, laguntza teknikarien eta kualifikatu gabeko profileko lan eskaintzek, ere, pisu nabarmena dute; 129, 122 eta 81 eskaintza erregistratu dira, hurrenez- hurren. Lan-eskaintza gutxien erregistratu diren profilak, lehen sektorekoak eta zuzendariak izan dira, 3 eta 5 eskaintza hurrenez hurren.

Aurreko hilabeteko datuekin alderatuz, eskaintza mota guztietan murriztu dira eskaintzak. Gehien murriztu diren eskaintzak, balore absolutuetan, zientzia teknikarienak izan dira (22 eskaintza gutxiago, % 58,4ko murrizketa). Balore erlatiboetan, aldiz, lehen sektoreko profileko eskaintzak izan dira gehien murriztu direnak (% 85,0ko murrizketa, 17 eskaintza gutxiago).

Urte arteko saldoari erreparatuz, gehien hazi diren eskaintzak, bai balore absolutuetan bai erlatiboetan, industria profilekoak izan dira (57 eskaintza gehiago, % 79,2ko hazkundea); beste muturrean, aldiz, kualifikatu gabeko profileko eskaintzak daude (% 30,2ko murrizketa, 35 eskaintza gutxiago).

• KONTRATU MOTA



Erregistratutako lan-eskaintzen % 14,7k kontratu mugagabea eskaini dute; % 85,1ek, aldi baterakoa, eta, gainontzeko % 0,3, merkataritzakoa. Balio absolutuetan, kontratu mugagabeen eskaintzak 109 izan dira, aurreko hilabetean baino 151 eskaintza gutxiago. Aldi baterako kontratuak eskaini dituzten 779 eskaintza gutxiago erregistratu dira: 633 eskaintza izan dira guztira. Kopuru erlatiboetan murrizketa % 55,2koa izan da. Azkenik, merkataritzako kontratuen eskaintzak 2021eko abenduan 2 izan dira, aurreko hilean baino 20 gutxiago.

Urte arteko saldoari dagokionez, kontratu mugagabeen eskaintzak 60 gehiago izan dira (% 122,5eko hazkundea), aldi baterako kontratuen eskaintzak % 18,5 hazi dira; 99 eskaintza gehiago, eta, merkataritzako kontratuak, azkenik, eskaintza bat gehiago erregistratu da.

• ESKATUTAKO ESPERIENTZIA-DENBORA



2021eko abenduan erregistratutako lan-eskaintzen 3 laurden baino gehiago (559 eskaintza, % 75,1) 0tik 6 hilabetera arteko esperientzia minimoa eskatzen dute. Eskaintzen % 12,6k (94 eskaintza) 6 eta 12 hilabete arteko esperientzia eskatzen dute. Portzentaia txikiagoak dituzte esperientzia-denbora luzeagoak eskatzen dituzten eskaintzek; 3 urtetik 5 urtera eskatzen dutenek % 1,5eko pisua dute (11 eskaintza) eta 5 urtetik gorako esperientzia eskatzen dutenen pisua % 0,8koa da (eskaintza 6).

Hilabete arteko eboluzioari dagokionez, eskaintza mota guztiak murriztu dira. Gehien murriztu diren eskaintzak, balore absolutuetan, 0 eta 6 hilabete arteko denbora eskatzen duten eskaintzak izan dira (753 eskaintza gutxiago, % 57,4ko murrizketa); balio erlatiboetan, berriz, 3 eta 5 urte arteko esperientzia denbora eskatzen dutenak izan dira gehien murriztu direnak (29 eskaintza gutxiago, % 72,5eko murrizketa).

Urte arteko eboluzioari dagokionez, eskaintza mota guztiak hazi dira. Gehien hazi direnak, balore absolutuetan, 0 eta 6 hilabete arteko esperientzia denbora eskatzen dutenak izan dira (116 eskaintza gehiago, % 26,2ko hazkundea); balore erlatiboetan, aldiz, 3 eta 5 urte arteko esperientzia eskatzen dutenak izan dira (% 100,0ko hazkundea, 3 eskaintza gehiago).

Erregistratutako eskaintzek, batez beste, 7 hileko esperientzia eskatzen dute, aurreko hilean bezain beste.

• LANALDI MOTA

Analisiarekin jarraitu baino lehen, esan beharra dago ez dutela erregistratutako eskaintza guztiek zehazten zein izango den lanaldi mota: soilik eskaintzen % 12,8k zehazten du datu hori (744 eskaintzetatik 95). 95 eskaintza horietatik, 77 lanaldi osoa eskaintzen dutenak izan dira, eta, gainontzeko 18k, lanaldi partziala eskaini dute.



Eboluzioari dagokionez, lanaldi osoko eskaintzak 104 gutxiago izan dira azaroarekin alderatuz, hau da, % 57,5 murriztu dira. Lanaldi partzialeko eskaintzak, berriz, 6 gutxiago izan dira; murrizketa erlatiboa % 25,0koa izan da.

Aurreko urteko hilabete berberarekin alderatuz, eboluzioa hurrengoa da: lanaldi osoko eskaintzak 22 gehiago izan dira (% 40,0ko murrizketa), eta lanaldi partzialeko kasuan, bat gutxiago (% 5,3ko murrizketa).

• ALDI BATERAKO LANERAKO ENPRESAK (ABLE)

Hil honetan 19 lan eskaintza kudeatu dira ABLEn bitartez, aurreko hilean baino 30 eskaintza gutxiago eta aurreko urtean baino 7 gehiago.

• ESKATUTAKO PRESTAKUNTZA MAILA

Adierazle honi buruzko datuak ere ez dira beti zehazten lan-eskaintzak erregistratzeko orduan. Eskaintzen % 82,1ek ez du zehazten zein den eskatutako prestakuntza maila minimoa: 744 eskaintzetatik 133k soilik zehaztu dute.



133 eskaintza horietatik, 56k unibertsitateko prestakuntza maila eskatu dute; ikasketa maila hau duten eskaintzak izan dira ugarienak. Ondoren, LHko ikasketa mailak eskatzen dituztenak daude, 50 eskaintza erregistratu dira. Azkenik, oinarrizko eta batxilergoko ikasketak eskatzen dutenak daude (22 eta 5 eskaintza, hurrenez hurren).

Hilabete arteko erlazioari erreparatuz, eskaintza mota guztiak murriztu dira. Gehien murriztu diren eskaintzak, balore absolutuetan, unibertsitateko ikasketak eskatzen dituztenak izan dira (99 eskaintza gutxiago, % 63,9ko hazkundea). Balore erlatiboetan, aldiz, batxilergoko ikasketak eskatzen dituztenak izan dira (% 85,7ko murrizketa, 30 eskaintza gutxiago).

2020ko abenduarekin alderatuz, eskaintza mota guztiak hazi dira, oinarrizko ikasketak eskatzen dituztenak izan ezik (eskaintza bat gutxiago, % 4,4ko murrizketa). Gehien hazi direnak, bai balore absolutu bai erlatiboetan, unibertsitateko ikasketak eskatzen dituztenak izan dira (16 eskaintza gehiago, % 40,0ko hazkundea).

• ESKAINTZAREN JARDUERA

EAEko enplegu-bulegoetan erregistratutako lan-eskaintzen kopuruari dagokionez, gehien nabarmentzen dena manufaktura industria izan da; honen pisua eskaintza guztien % 12,9koa izan da (96 eskaintza). Nabarmentzeko beste jarduera batzuk merkataritza, osasun jarduerak eta jarduera administratiboak izan dira, eskaintzen % 12,0, % 10,6 eta % 9,7ko pisuarekin (89, 79 eta 72 lan-eskaintza, hurrenez hurren).

Aurreko hilari erreparatuz, eskaintza mota guztiak murriztu dira. Gehien murriztu diren eskaintzak, bai balore absolutuetan bai erlatiboetan, Administrazio Publikokoak izan dira (321 eskaintza gutxiago, % 81,9ko murrizketa).

Urte arteko saldoari erreparatuz, bilakaera hoberena izan duten eskaintzak, balore absolutuetan, merkataritzakoak izan dira (29 eskaintza gehiago, % 48,3ko hazkundea); balore erlatiboetan, ostalaritzakoak izan dira gehien hazi direnak (% 216,7ko hazkundea, 26 eskaintza gehiago). Aldiz, gehien murriztu diren eskaintzak, balore absolutuetan, Administrazio Publikokoak izan dira (56 eskaintza gutxiago, % 44,1eko murrizketa); balore absolutuetan, ur horniketako eskaintzak izan dira gehien murriztu direnak (% 91,3ko murrizketa, 21 eskaintza gutxiago).